

**124/2009 FORU AGINDUA, urtarrilaren 13koa; honen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroa araupetu da. (BAO Urtarrilaren 21ekoa)**

Itzulketarako eskubidea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren funtsezko elementua da. Hori dela eta, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren jurisprudentzian hainbat aldiz azpimarratu da ezinbestekoa dela subjektu pasiboek eskubide hori berehala baliatu ahal izatea.

Gainera, ahaleginak egin behar dira enpresaburuei eta profesionalei ez jasanarazteko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortzen ondoriozko itzulketetan gertatzen diren atzerapenen finantza kostua, batez ere inbertsio handiak egin diren zergaldietan eta zergadunak enpresa edo lanbide jarduera bati ekiteko asmoa duenean.

Orain arte, itzulketen prozedura orokorrean, salbuespenak salbuespen, itzulketa eskabideak azken likidazioaldiko aitortpena aurkeztu arte geroratzen izan dira, eta horrela zeharkako zerga presioaren gehikuntza gertatzen izan da, gaur egun justifikatzen gaitz dena. Hori dela eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegia egokitu ondoren, foru agindu honen bitartez zerga horren hileko itzulketak egiteko sistema ezarriko da, eta sistemaren oinarri nagusia hileko itzulketen erregistroa izango da.

Erregistroaren erabilerari dagokionez, inskribatzeko epealdiak oso malguak izango dira, kontuan hartuta eskaera berariazko zentsu aitortpen baten bidez egin behar dela. Salbuespena: esportatzaileen erregistroan inskribatuta dauden subjektu pasiboak berez sartuko dira hileko itzulketen erregistroan.

Gainera, sistemak ahalik azkarren funtziona dezan, oraindik aurrera Zergaren aitortpenak egin beharko dira eta telematikoki aurkeztu beharko dira.

Azkenik, erregistroko inskripzioa erregistro liburuetako eragiketei buruzko informazioa eman beharrezkin koordinatu da (betebehar hori Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetu dituen abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuak onetsitako Araudiko 47. artikuluan ezarri da).

Hori dela bide, hauxe.

XEDATU DUT:

**1. artikulua.-Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroa.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 116 eta 163 nonies artikuluetan ezarritako itzulketa eskubidea erabili nahi duten subjektu pasiboak foru agindu honen bidez araupetutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatuta egon behar dira. Ez badaude inskribatuta, egutegiko urteko azken likidazioaldiko azken egunean eduki duten aldeko saldoa soilik eskatu ahal izango dute itzultzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 115. artikuluko lehen idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorritik.

**2. artikulua.-Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzeko betekizunak.**

Erregistroan inskribatzeko, subjektu pasiboek eskabidea aurkeztu behar dute eta ondoko betekizun hauek bete behar dituzte:

1. Inskripzioa zentsu aitopen baten bitartez eskatu behar dute. Eskaera baliabide telematikoen bitartez aurkeztu behar dute.
2. Zerga betebeharrak egunean eduki behar dituzte, foru agindu honetako xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoari lotuta.
3. Ezin dira egon Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan kautelaz baxa ematea eragin dezakeen kasu batean (kasu hauek Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetu dituen abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuak onetsitako Araudiko 70. artikuluan ezarri dira).
4. Ezin dute egin araubide erraztuan kargatzen den jarduerarik.
5. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko IX. tituluko IX. kapituluaren araupetutako erakunde taldeen araubide bereziari heldutako erakunde kasuan, erregistroan inskribatzeko ezinbestekoa da araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiak horretan bat etortzea eta artikuluko honetan ezarritako betekizunak betetzea.

Erakunderen batek betekizunen bat betetzen ez badu, araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistrotik kanpo utziko dira, edo ez dira onartuko.

Erregistroan inskribatzeko eskabidea, bai eta baxa emateko eskabidea ere, taldeko erakunde nagusiak aurkeztu behar dio Zerga Administrazioari. Eskabideak araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiak hartuko ditu.

Erregistroan inskribatzeko edo baxa emateko jarduketak, bai eta inskribatutako erakundeek betekizunak betetzen jarraitzen dutenez egiaztatzeko jarduketak ere, taldeko erakunde nagusiarekin egingo dira, taldearen ordezkaria den aldetik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 163 nonies.bi artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

### **3. artikulua.-Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzeko eskabideak aurkezteko epealdiak.**

Erregistroan inskribatzeko eskabideak inskripzioak ondoreak sortu behar dituen urteko urtarilean aurkeztu behar dira. Inskripzioak hilaren 1etik aurrera egingo dira.

Hala ere, erregistroan inskribatzeko eskabidea aurreko paragrafoan ezarritako epealdian aurkeztu ez duten subjektu pasiboek eta, enpresa edo lanbide jarduerari dagozkien ondasun emate edo zerbitzugintzak egiten hasi ez arren, jarduera horietarako ondasunak edo zerbitzuak eskuratu dituzten enpresaburu edo profesionalek (ondasun edo zerbitzuen xedea elementu objektiboen bidez berretsi behar da) aldizkako autolikidazioak aurkezteko epealdian eskatu ahal izango dute erregistroan inskribatzeko. Batera zein bestera, erregistroko inskripzioak autolikidazioak likidatzeko epealdiko azken egunaren biharamunetik aurrera sortuko ditu ondoreak.

Erakunde talde batek erakunde taldeen araubide bereziari heldu nahi badio eta erakunde guztiek erregistroan inskribatzeko eskatzea hitzartu badute, taldeko erakunde nagusiak inskripzio eskabidea araubide berezia hautatzeko agiriarekin batera aurkeztu behar du, eta honetarako ezarritako moduan, tokian eta epealdian. Eskabideak egutegiko hurrengo urtearen hasieratik aurrera sortuko ditu ondoreak. Erregistroan inskribatzeko akordioa geroago hitzartzen bada, eskabidea aldizkako autolikidazioak aurkezteko epealdian aurkeztu behar da, eta likidazioaldiko azken egunaren biharamunetik aurrera sortuko ditu ondoreak.

Erregistroan inskribatzeko eskabide bat epez kanpo aurkeztu bada, gaitz iritziko zaio eta artxibatu egingo da, eta izapide bakarra subjektu pasiboari jakinaraztea izango da.

#### **4. artikulua.-Administrazio isiltasuna.**

Subjektu pasiboek gaitz iritzizat jo dezakete erregistroan inskribatzeko eskabidea aurkeztu eta hurrengo hiru hiletan espedientearen ebazpenaren berariazko jakinarazpena jasotzen ez badute.

#### **5. artikulua.-Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzea ukatzea eta hartatik kanpo geratzea.**

Foru agindu honetako 2. artikuluan ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada edo egiaztatzen bada Zerga Administrazioari emandako zentsu informazioa oker dagoela edo faltsua dela, hori nahikoa izango da erregistroan inskribatzea ukatzeko edo, subjektu pasiboa inskribatuta badago, Zerga Administrazioak erregistrotik kanpo uzteko.

Subjektu pasibo baten bazterketak erabakia jakinarazten den likidazioaldiko lehen egunetik sortuko ditu ondoreak, erabakian besterik ezarri ezean. Honen ondoretarako, aski izango da ebazpenaren testu osoa jakinarazteko ahalegin bat egin dela egiaztatzea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, erregistrotik baztertzeak berekin ekarriko du hurrengo hiru urteetan, ebazpenak ondoreak sortzen dituenetik zenbatuta, inskribatzeko eskabideak ez onartzea.

#### **6. artikulua.- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan irautea eta baxa.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzen diren subjektu pasiboak bertan egon beharko dira inskripzio eskabidean adierazitako urtean, gutxienez. Beste alde batetik, inskribatzeko eskabidea aldizkako autolikidazioaldiaren barruan aurkezten duten subjektu pasiboak eta enpresa edo lanbide jardueri dagozkien ondasun emate edo zerbitzugintzak egiten hasi ez diren enpresaburuak eta profesionalak gutxienez inskribatzeko eskabidean adierazitako urtean eta hurrengoan egon beharko dira erregistroan.

Erregistroan norberaren borondatez baxa emateko eskabideak hark ondoreak sortu behar dituen urteko urtarilean aurkeztu behar dira.

Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten taldeen kasuan, borondatezko baxaren eskabidea taldeko erakunde nagusiak aurkeztu behar du baxak ondoreak sortu behar dituen urtearen aurreko abenduan.

foru agindu honetako 2. artikuluko 4. betekizuna betetzeari utziz gero. Eskabidea betekizuna betetzeari uzten zaion hileko autolikidazioa aurkezteko epealdiaren barruan aurkeztu behar da, eta hileko lehen egunetik sortuko ditu ondoreak.

Baxa eskatuz gero, subjektu pasiboak ezin eskatu izango du berriz inskribatzeko egutegiko urte berean.

#### **7. artikulua.-Aurkezpen telematikoa.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzen diren subjektu pasiboek hileroko eta baliabide telematikoen bitartez aurkeztu beharko dituzte Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioak.

Gainera, Zergaren erregistro liburu-etako edukiari buruzko aitortpen informatiboa ere aurkeztu beharko dute, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetu dituen abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuak onetsitako Araudiko 47. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Aurreko paragrafoan aipatutako aitortpen informatiboa ez aurkeztea prozeduraren luzapentzat joko da, Administrazioari egotz ezin dakiokkeen luzapentzat. Luzapenaren iraupena foru agindu honetan araupetutako itzulketa prozeduraren hasieratik aitortpena aurkeztu arte izango da.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

**Bakarra.-Zerga betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko betekizunak.**

...

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenengoa.-Inskripzio automatikoa.**

2009ko urtarrilaren 1ean esportatzaileen eta beste eragile ekonomiko batzuen erregistroan dauden subjektu pasiboak, baldin eta foru agindu honetako 2. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badituzte, berez inskribatuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan, ondore guztiekin. Hala ere, baxa emateko eskatu ahal izango dute foru agindu honetako bigarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatian ezarritako epealdian. Nolanahi ere, horrek ez du eragotziko foru agindu honetako 5. artikuluan ezarritakoa.

**Bigarrena.-Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzeko eskabideak aurkezteko aparteko epealdiak.**

1. Ondoreak 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera sortu behar dituzten inskripzioen kasuan, ez beste ezeinetan, eskabidea aurkezteko epealdi orokorra, foru agindu honetako 3. artikuluko lehenengo paragrafoan ezarri dena, urte horretako urtarrilaren 31ra arte izango da.
2. Aparteko kasuetan, 2009ko ekitaldian, urtarrilean enpresa edo lanbide jarduera bati ekiten dioten subjektu pasiboek, baldin eta enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuko alta aitortpena urte horretako urtarrilaren 1etik 31ra bitartean aurkezten badute, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan sartzeko eskatu ahal izango dute, inskripzioak urtarrilaren 1etik sortzen dituela ondoreak.

## **AZKEN XEDAPENA**

Foru agindu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak.

Bilbon, 2009ko urtarrilaren 13an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,.

José María Iruarrizaga Artaraz.